



**nikus  
er.**

## **Unibertsitateko panela (EHU eta UPNA/NUP)**

Plataforma digitalak

**64. TXOSTENA  
2026EKO OTSAILA**



# AURKIBIDEA

IKUSIKER.....	2
1. FITXA TEKNIKOA.....	3
2. EMAITZAK.....	4
Interneten/sare sozialetan eta telebistan ikusitako azken edukiak.....	4
Plataforma digitalak.....	9
ETB On.....	21
LABURREAN.....	25
Plataforma digitalak.....	25
IKUSIKER.....	27

# IKUSIKER

Gazteek ikus-entzunezkoak kontsumitzeko eta Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) erabiltzeko ohiturak, moduak eta joerak aztertzen ditu IKUSIKER Ikus-entzunezkoen Behategiak.

2018/2019 ikasturtean sortu zen IKUSIKER Behategia eta gaur egun NOR Ikerketa Taldeaz gain beste erakunde hauek osatzen dute: EITB, Kulturaren Euskal Behatokia, Euskararen Erakunde Publikoa eta Euskarabidea.

NOR ikerketa taldearen kodea da: IT1438-22. Ikerketa hau EHUren US24/29 deialdiaren barruan kokatzen da.



EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea.

Sarriena auzoa z/g. 48940. Leioa (Bizkaia).

+34 747 414 355

[ikusiker@ehu.eus](mailto:ikusiker@ehu.eus)

**Nola aipatu:** Ikusiker Behategia (2026): *Plataforma digitalak. 64. Txostena.*

Egileak: Edorta Arana Arrieta, Bea Narbaiza Amillategi, Garazi Sanchez Murciano, Ane Zugaza Goienetxea, Xabier Tirapu Intxaurren, Mikel Peña Sarrionandia, Itziar Zorita Agirre, Maialen Goirizelaia Altuna, Jone Hernandez Perez de Gereñu, Uxue Zendagortagalartza Velasco eta Joana Arguiñano Rojo.

[www.ikusiker.eus](http://www.ikusiker.eus).

Ikerketa hau burutzeko Aztiker Soziologia Ikerketa Zentroaren laguntza jaso da eta Encuestafacil aplikazioa erabili da *online* galdetegiak betetzeko.



# 1. FITXA TEKNIKOA

2025-2026 ikasturtean, IKUSIKERen Unibertsitateko panelean bat egiten dute Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA/NUP) 3760 ikaslek. Laginean lurralde, jakintza-arlo, fakultate eta ikasketa-maila desberdinetako gazteak daude. Landa-lanari dagokionez, ikasturtearen hasieran, aurrez aurre, ikasgeletan betetzen dute lehen inkesta eta, hortik aurrera, panelean parte hartzeko baiezkua ematen duten ikasleei Whatsappez bidaltzen zaizkie hurrengoko bost galde-tegiak, hilean behingo maiztasunarekin.

Txosten honetan aurkitu daitezke 2026eko otsailaren 16 eta 22 bitartean plataforma digitalei buruz egindako inkestaren emaitzak. Guztira, 2394 ikasleren erantzun baliagarri jaso dira.

IKUSIKERen Unibertsitateko panela EHUko eta UPNA/NUPekeko ikasle guztien errepresentagarri da. Unibertso horren kopurua lortzeko, laginaren datuen gaineko ponderazioa egiten da, eta horretarako, aldagai hauek erabiltzen dira:

- Generoa
- Unibertsitatea
- Lurraldea
- Ikasketa eremua
- Ikasketa-maila

## 2. EMAITZAK

### INTERNETEN/SARE SOZIALETAN ETA TELEBISTAN IKUSITAKO AZKEN EDUKIAK

Lehen atal honetan, unibertsitarioek ikusi dituzten azken edukien gaineko informazioa zehazten da, hasieran, Interneten edo sare sozialetan ikusitakoak eta gero telebistatik gogoratzen dituztenak.

Galdera honek, bat-batean burura datozkien ikus-entzunezko edukiak (*top-of-mind*) zeintzuk diren argitzen du eta, modu horretara, unibertsitarioek dituzten gustuak eta zaletasunak zeintzuk diren, bolo-bolo dabiltzan ikus-entzunezkoen gaineko ikuspegi argia emanez.

#### 1. irudia: Interneten ikusitako azken edukien hitz-lainoa.




Iturria: IKUSIKER, 2026ko otsaila.

Interneteko edo sare sozialen edukien kasuan, panelkideen % 31,9k dio azken edukia Instagram plataforman ikusitakoa dela. Beste % 25,9k YouTuben kokatzen du eta ikasleen % 13,9k TikTok izan du Interneten ikusitako azken edukien euskarri.

**2. irudia: Interneten ikusitako azken edukiaren plataforma. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.**

Zein plataformatan ikusi zenuen Interneten kontsumitutako azken ikus-entzunezkoa?

Unibertsoa: 44.253 / Xede-taldea: 44.253 (% 100)



Iturria: IKUSIKER, 2026ko otsaila.


Edozelan ere, irudiak erakusten duenez generoaren arabera alde handia dago. Gizonezkoek ikusi dituzten azken edukien artean YouTubekoak nagusitzen dira (% 36,9), Instagramekoak aurretik (% 29,2). Aldiz, emakumezkoentzat Instagram (% 34), YouTube (% 17,9) eta TikTok (% 17,3) dira aipatuak.

Beheko irudian azaltzen denez, % 66,3k gaztelaniazko edukiak aipatu dituzte azkenengo kontsumitutakoan artean eta % 25,3k ingelesezkoak. Interneten ikusitako azken edukia euskarazkoa izan dutenen kopurua % 5 da.

**3. irudia: Interneten edo sare sozialetan ikusitako azken edukiaren hizkuntza. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.**

*Zein hizkuntzatan ikusi zenuen Interneten kontsumitutako azken edukia?*

Unibertsitatea: 44.253 / Xede-taldea: 44.253 (% 100)



Iturria: IKUSIKER, 2026ko otsaila.

Telebistan egindako azken kontsumoan jarriko da arreta orain. Beheko irudiak telebistan azkenekoz ikusitako edukiaren idatzizko erantzunak biltzen ditu hitz-laino batean. Bat-batean burura datozkien ikus-entzunezko edukiak (*top-of-mind*) zeintzuk diren argitzen du.

**4. irudia: Telebistan ikusitako azken edukien hitz-lainoa.**




Iturria: IKUSIKER, 2026ko otsaila.

Telebistan ikusi duten azkena zein kanalean izan den eta edukiaren hizkuntzari erreparatuko dizkiegu ondoko lerroetan. Hasteko, kontuan hartu beharrekoa da aipatuenak diren telebista-kanalak LA1 eta ETB2 direla eta atzerago datozela ETB1 eta FDF.

**5. irudia: Zein telebista kanalean ikusi duten azken edukia. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.**

*Zein telebista kanalean ikusi zenuen telebista tradizionalen kontsumitutako azken ikus-entzunezkoa?*

Unibertsoa: 44.253 / Xede-taldea: 44.253 (% 100)



Iturria: IKUSIKER, 2026ko otsaila.

Ikasleen %20,2k azken edukia LA1n ikusi du. Koska bat beherako dago ETB2 eta ETB1 ondoren (%10,6). ETB2ren kasuan izan ezik, handiagoak dira ehunekoak gizonen kasuan. Laugarren tokoa hartzen duen FDF kanal tematikoa gizonezkoen % 11,9k aipatzen du eta emakumezkoen dagokionez % 8,1ek baino ez.

Goiko grafikotik deduzitu daitekeenez, ikusitako azken telebistako edukietatik euskarazkoen kopurua % 10,6 da, gainerakoen emisioa gaztelaniaz izanik.

## PLATAFORMA DIGITALAK

Atal honetan unibertsitarioek ikus-entzunezko *streaming* plataformetan egiten duten erabileraren inguruko datuak jasotzen dira: eskuragarri dituzten plataformak, erabilera maiztasuna eta denbora, edukiak pirateatzeako ohitura, edukiak ikusteko hizkuntza, azpidatzien erabilera, gomendioak jasotzeko iturria eta edukiak aukeratzeko sentitutako nekea, besteak beste.

EITBk berriki ateratako ETB On plataformari buruz egindako galderen emaitzak ere azaltzen dira.


Emaitza guztiak generoaren arabera aztertu dira, eta alde berezi edo aipagarriak agertzen direnean, mailaren arabeko ehunekoak ere erakusten dira.

*Streaming* plataformen erabileraren irudi orokorra egiteko, kontsumo maiztasunaren eta denboraren inguruko informazioa erakusten da hurrengo irudietan. Plataforma guztiak kontuan hartuta, ikasleen % 93,9k noizbait erabiltzen ditu, eta % 37,5ek eguneroko erabilera egiten du. Konektatzen diren egunetan 90 minutu baino gehiagoz erabiltzen dituzte plataformak ikasleen % 41,2k.

### 6. irudia: Plataforma digitalak erabiltzeko maiztasuna. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.

Plataforma guztiak kontuan hartuta, zenbatero erabiltzen dituzu streaming plataformak?

Unibertsioa: 44.253 / Xede-taldea: 41.460 (% 93,69)




Iturria: IKUSIKER, 2026ko otsaila.


**7. irudia: Plataforma digitaletan egunean ematen duten denbora. Ehunekoak guztira.**

Streaming plataforma batera konektatzen zaren egunetan, zenbat denbora egoten zara serieak, pelikulak edo programak ikusten?

Unibertsoa: 44.253 / Xede-taldea: 41.645 (% 94,11)



**8. irudia: Plataforma digitaletan egunean ematen duten denbora. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.**




Erabilera plataformaz plataforma zehatzago ezagutzeko, eskuragarri dituzten plataformen eta horien erabilera maiztasunaren inguruko datuak azaltzen dira behean. Netflix da erabilera maiztasun altuenean ehuneko handiena lortu duen plataforma (% 38,5) eta "ez daukat" kategorian ehuneko txikiena biltzen duena (% 20,2). Zerrendako hurrengo plataforma erabiliena Amazon Prime Video da. Ikasleen % 70,4k dauka plataforma eskuragarri eta % 13,4k askotan erabiltzen du. Hurrengo kategoriatik aurrera, eskuragarritasunean 35 puntu inguruko beherakada ikusten da.

10. irudian eskuragarritasunaren datua generoaren arabera ikusten da. Emakumeek maizago erabiltzen dituzte lehenengo hiru plataforma nagusiak (Netflix, Amazon Prime Video eta Disney+), eta gainera eskuragarritasun datu altuagoak erakusten dituzte. Alde handiena Amazonen kasuan ikusten da, non "ez daukat" kategorian emakumeen ehunekoa gizonena baino 10 puntu inguru altuagoa den.

**9. irudia: Eskuragarri dituzten plataformak. Ehunekoak guztira.**


*Hauetariko zein streaming plataforma daukazu eta erabiltzen duzun jakin nahi dugu. Berdin dio gurasoek ordaintzen badute edo beste batzuekin konpartitzen baduzu, interesatzen zaiguna da jakitea ea zeintzuk ikusteko aukera daukazu.*

Unibertsoa: 44.253 / Xede-taldea: 44.253 (% 100)



Iturria: IKUSIKER, 2026ko otsaila.

10. irudia: Eskuragarri dituzten plataformak. Ehunekoak generoaren arabera.




Iturria: IKUSIKER, 2026ko otsaila.

Aurreko irudietako grafikoek emandako informazioa berresten dute beheko datuek. Plataforma digitalean ikusi duten azken edukia non kontsumitu duten galdetzerakoan, Netflixek ikasleen ia erdia biltzen duela ikusten da. Prime Videok eta HBOk bigarren eta hirugarren lekua hartzen dute zerrendan (%14,7 eta %7,1, hurrenez hurren).

**11. irudia: Plataforma digitalean azken edukia ikusteko plataforma. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.**

*Ikusi duzun azken hori zein plataformatan zegoen?*

Unibertsoa: 44.253 / Xede-taldea: 41.645 (% 94,11)




Aurrerago, ikasleei galdetu zaie telebista kateek sortutako *streaming* plataformak ezagutu eta erabiltzen dituzten. Estatuko kate generalista nagusien plataformak eskaini zaizkie zerrendan. EITB taldearen Primeran eta ETB On plataformek antzeko datuak erakusten dituzte: unibertsitarioen % 45 inguruk ez du plataforma ezagutzen, % 35aren bueltan dabilta ezagutu bai baina erabiltzen ez dutenak eta % 20k, gutxi gora behera, erabiltzen du. RTVE Play da erabileran ehuneko altuena erakusten duen plataforma (10 ikasletik 3k erabili/erabiltzen du) eta aipatzekoa da Atresplayer-en kasua: ezagutza tasa altuena badu ere, besteekin alderatuta gutxien erabiltzen dena da.

**12. irudia: Telebista tradizionalako kateen *streaming* plataformen ezagutza. Ehunekoak guztira.**

*Ezagutzen dituzu streaming plataforma hauek?*

Unibertsoa: 44.253 / Xede-taldea: 44.253 (% 100)




Iturria: IKUSIKER, 2026ko otsaila.

Unibertsitateko ikasleek ikus-entzunezkoak pirateatzeko duten ohitura ezagutu nahi izan da, hau da, ordainpekoak diren edukiak dohainik eskaintzen dituzten web orrialdeetatik deskargatzen dituzten. Ikasleen %66,8k edukiak pirateatzen ditu, gizonek emakumeek baino gehiago. Gizonen laurden batek askotan egiten du, emakumeen ehunekoak kategoria honetan %12 izanik.

### 13. irudia: Ikus-entzunezko edukiak pirateatzen dituzten. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.

*Ikus-entzunezkoak pirateatzen dituzu? (Ordainpekoak diren edukiak dohainik eskaintzen dituzten web orrialdeetatik deskargatu)*

Unibertsoa: 44.253 / Xede-taldea: 44.253 (%100)




Iturria: Ikusiker, 2025eko azaroa

Hurrengo irudietan kontsumo hizkuntzaren inguruko datuak azaltzen dira. Audioaren hizkuntzari dagokionez, %68,2k edukiak batez ere gaztelaniaz ikusten dituztela markatzen duten, gizonek emakumeek baino gehiago (%75 eta %64,6, hurrenez hurren). Laurden batek ingelesa aukeratu du (kasu honetan emakumeen ehunekoak da altuagoa) eta euskara aukera nagusi gisa markatu dutenak ez dira ehuneko 2ra iristen. Datuak mailaka aztertuta, hirugarren maila+ taldeko ikasleek gutxiago aukeratu dute gaztelania eta gehiago ingelesa, beste mailletako ikasleekin alderatuta.

**14. irudia. Plataforma digitaletako edukiak kontsumitzeko hizkuntza. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.**


Normalean, ze hizkuntzatan ikusten duzu streaming plataformetako edukia? (audioaren hizkuntza)

Unibertsoa: 44.253 / Xede-taldea: 41.645 (% 94,11)



Iturria: IKUSIKER, 2026ko otsaila.

**15. irudia. Plataforma digitaletako edukiak kontsumitzeko hizkuntza. Ehunekoak mailaren arabera.**




Iturria: IKUSIKER, 2026ko otsaila.

Aurrerago, azpidatziak erabiltzeko ohituraz galdetu da. Ikasleen erdiak, gutxi gora behera, orokorrean erabiltzen ez dituela aitortzen du (gizonek zertxobait gehiago), eta laurden batek ingelesa aukeratu du (emakumeen % 29k eta gizonen % 23,2k). Mailan gora egin ahala, azpidatziak erabiltzen dituzten ikasleen ehunekoa jaisten da, eta ingelesez erabiltzen dituztenen ehunekoa igo.

**16. irudia: Plataforma digitaletako edukien azpidatzien hizkuntza. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.**


*Eta erabiltzen duzu azpidatzirik edo subtitulurik? Ze hizkuntzatan?*

Unibertsoa: 44.253 / Xede-taldea: 41.645 (% 94,11)



Iturria: IKUSIKER, 2026ko otsaila.

**17. irudia: Plataforma digitaletako edukien azpidatzien hizkuntza. Ehunekoak mailaren arabera.**




Iturria: IKUSIKER, 2026ko otsaila.

Hurrengo irudietan, plataforma digitaletan edukiak ikusterakoan gomendioak nondik jasotzen dituzten erakusten da. Lagunen arteko ahoz ahokoa da ikasleen % 43ren gomendio iturri nagusia. Bigarren kategoria hautatuena sare sozialak dira, emakumeen ehunekoa gizonena baino 12 puntu inguru altuagoa izanik. Datuak mailaka aztertuta, 3. maila+ taldeko ikasleek gutxiago aukeratu dute "lagunak" kategorია eta gehiago sare sozialena, gainontzeko mailekin alderatuta.

**18. irudia: Plataforma digitaletako edukiak aukeratzeko gomendioak nondik jasotzen dituzten. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.**


*Plataforma digitaletan zer ikusiko duzun erabakitzeko orduan, nondik jasotzen dituzu gomendioak?*

Unibertsoa: 44.253 / Xede-taldea: 41.645 (% 94,11)



Iturria: IKUSIKER, 2026ko otsaila.

**19. irudia: Plataforma digitaletako edukiak aukeratzeko gomendioak nondik jasotzen dituzten. Ehunekoak mailaren arabera**




Iturria: IKUSIKER, 2026ko otsaila.

Plataforma digitaletan edukia aukeratzeko orduan nekea sentitu duten galdetu zaienean, ikasleen heren batek baino gehiagok (% 34,3) askotan sentitu duela aitortu du. Emakumeen % 40 biltzen da kategoria honetan, gizonen % 26,9arekin alderatuta. "Oso gutxitan" eta "ez dut nekerik sentitu" kategoriek ikasleen laurdena batzen dute. Mailakako datuak ikusita maila altueneko ikasleek nekea gehiagotan sentitzen dutela ondorioztatzen da.

**20. irudia: Plataforma digitaletan edukia aukeratzekoan nekea sentitu duten. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.**


Plataforma digitaletan zer ikusiko duzun erabakitzerako orduan, nekea sentitu izan duzu eduki kopuru handia dagoelako?

Unibertsoa: 44.253 / Xede-taldea: 41.460 (% 93,69)



Iturria: IKUSIKER, 2026ko otsaila.

**21. irudia: Plataforma digitaletan edukia aukeratzekoan nekea sentitu duten. Ehunekoak mailaren arabera.**




Iturria: IKUSIKER, 2026ko otsaila.

Azkenik, ikasleei *streaming* plataformei (orokorrean) nota jartzeko eskatu zaie. 7-8 notak eman diete emakumeen % 59,2k eta gizonen % 47,9k. Gizonek emakumek baino gehiago eman dituzte 9-10 balorazioak.

## 22. irudia: Plataforma digitalei emandako nota. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.

Zein nota jarriko zenieke *streaming* plataformei?

Unibertsoa: 44.253 / Xede-taldea: 41.460 (% 93,69)



Iturria: IKUSIKER, 2026ko otsaila.

## ETB ON


Urte luzez erabilgarri egon den Nahieran atzean utzi eta 2025eko abendu amaiera aldean jarri zen martxan ETB On, EITBko edukiak edonon eta edonoiz ikusteko plataforma berria. ETB On plataformari buruzko galderak barne biltzen dituen inkesta 2026ko otsailaren 16 eta 22a bitartean erantzun duten ikasleek, plataforma abian jarri eta bi hilabetera. Hurrengo bi irudietan plataformari buruzko bi galderen emaitzak azaltzen dira: erabilera maiztasuna eta plataformari emandako nota.

Ikasleen % 77,2k erantzun du ez duela plataforma erabiltzen, eta egiten dutenak era homogeneoan banatzen dira 2-5 aldiz astean, astean behin eta hilean behin kategorietan.

**23. irudia: ETB On plataformaren erabilera maiztasuna. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.**

ETB On erabiltzen duzu?

Unibertsoa: 44.253 / Xede-taldea: 44.253 (% 100)



Iturria: IKUSIKER, 2026ko otsaila.


Hurrengo irudietan ikasleek ETB On noren/zeren bidez ezagutu duten erakusten da. Emakumeek gehiago aukeratu dute ahoz ahoko komunikazioa (% 36,5) eta gizonak publizitatea (% 27,9). Bigarren bide aukeratuena (bai emakume zein gizonetan) telebista tradizionala izan da, eta webguneak pareko dabilta, xede taldearen % 17,3k markatu du.

Mailan gora jo ahala, ETB On-en berri lagunen edo familiaren bidez izan dutenen ehunekoak behera egiten du eta webguneek gora. Hirugarren maila+ ikasleen kasuan, antzera banatzen dira "lagunak/familia", "ohiko telebista" eta "webguneak" aukeren artean.

**24. irudia: ETB On plataformaren berri nola izan duten. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.**


Nola izan zenuen ETB Onen berri?

Unibertsoa: 44.253 / Xede-taldea: 10.073 (% 22,76)



Iturria: IKUSIKER, 2026ko otsaila.

**25. irudia: ETB On plataformaren berri nola izan duten. Ehunekoak mailaren arabera.**




Iturria: IKUSIKER, 2026ko otsaila.

Plataformari emandako notei dagokionez, orokorrean emakumeek nota altuagoak eman dituzte gizonekin konparatuta. Orokorrean, ikasleen erdiak baino gehiagok (% 53,1) 7-8 balorazioak eman ditu.

**26. irudia: ETB On plataformari emandako nota. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.**

Zer nota emango zenioke ETB On plataformari?

Unibertsoa: 44.253 / Xede-taldea: 10.073 (% 22,76)



Iturria: IKUSIKER, 2026ko otsaila.

## LABURREAN

- Interneteko azken kontsumoan, ikasleek gehien aukeratzen dituzten sareak Instagram (%31,9), YouTube (%25,9) eta TikTok (%13,9) dira. Generoaren arabera aldeak nabarmenak dira: gizonak YouTube gehiago aipatzen dute (%36,9) eta emakumeek Instagram (%34) eta TikTok (%17,3).
- Hizkuntzari erreparatuta, azken kontsumitutako artean nagusi da gaztelania (%66,3) eta ondoren ingelesa (%25,3); azken edukia euskaraz ikusi dutenen ehunekoak 5 da.
- Telebistari dagokionez, LA1 da aipatuena (%20,2), eta atzetik ETB2 eta ETB1 datoz. Nabarmena da gizonen %11,9k FDF kanal tematikoa aipatzen dutela (emakumeetan %8,1).
- Hizkuntzari dagokionez, ikusitako azken telebista-edukien artean euskarazkoak %10,6 dira; gainerakoa, nagusiki, gaztelaniaz emititzen da.

## PLATAFORMA DIGITALAK

- Ikasleen %93,9k noizbait erabiltzen ditu *streaming* plataformak eta %37,5ek eguneroko erabilera egiten du; konektatzen diren egunetan, %41,2k 90 minutu baino gehiago ematen du. Erabilera maiztasuna plataformaz plataforma ikusita, Netflix da erabiliena ("askotan" %38,5; "ez daukat" %20,2), eta ondoren Amazon Prime Video dator (eskuragarri %70,4; "askotan" %13,4). Generoaren arabera, hiru plataforma erabilienetan (Netflix, Amazon Prime Video eta Disney+) emakumeek erabilera handiagoa dutela ikusten da oro har.
- Plataformetako azken edukia non kontsumitu duten galdetuta, ikasleen ia erdia Netflixen biltzen da; Prime Video (%14,7) eta HBO (%7,1) dira hurrengoak.
- Telebista-kateen *streaming* zerbitzuez galdetzean, Primeran eta ETB On ikasleen %55k ezagutzen du (%35ek ezagutzen dute baina ez dute erabiltzen, eta %20 inguruk erabiltzen du). RTVE Play da besteekin alderatuta gehien erabiltzen dena (10 ikasletik 3). Pirateriaz galdetzean, ikasleen %66,8k edukiak bide honen bidez lortzen ditu, gizonak gehiagotan (laurden batek "askotan", emakumeen %12arekin alderatuta). Audio-hizkuntzan, gaztelania da hizkuntza hautatuena (%68,2); heren bat

inguruk ingelesa aukeratu du, eta euskara ez da %2ra iristen. Azpidatzietan, ikasleen erdiak ez ditu orokorrean erabiltzen eta ingelesezkoak laurden batek, emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa izanik.

- Gomendio iturri nagusia lagunen arteko ahoz ahokoa da (%43), eta sare sozialek ere pisu handia dute, bereziki emakumeen artean (%34,7). Edukia aukeratzekoan, %34,3k "askotan" nekea sentitzen du (emakumeak %40; gizonak %26,9).
- *Streaming* plataformen balorazio orokorrean, 7-8 notak nagusi dira (emakumeen %59,2; gizonen %47,9).
- ETB On-i dagokionez ikasleen %22,8k erabili izan du/erabiltzen du, eta 7-8 balorazioa eman du ikasleen %53,1.
- ETB On-en berri nola izan duten galdetu zaienean, emakumeek gehiago aukeratu dute ahoz ahoko komunikazioa (%36,5) eta gizonen publikitatea (%27,9).

## IKUSIKER

IKUSIKER Ikus-entzunezkoen Behategiak gazteek ikus-entzunezkoak ikusteko eta IKT edo Informazio eta Komunikazio Teknologiak erabiltzeko ohiturak, moduak eta joerak aztertzen dituen behategia da.

IKUSIKER 2018/2019 ikasturtean sortu zen NOR Ikerketa Taldeak (IT1438-22) eta EITBk abiatutako IKUSIKER (US24/29) ikerketa-proiektuaren barruan. Gaur egun, EHU, EITB, Euskararen Erakunde Publikoa, Kulturaren Euskal Behatokia eta Euskarabidearen arteko elkarlanaren fruitu da.



**EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea.**

**Sarriena auzoa z/g. 48940. Leioa (Bizkaia).**

**+34 747 414 355**

**[ikusiker@ehu.eus](mailto:ikusiker@ehu.eus)**